

<p>Mikrokontakizunen lehiaketa “Pobrezia eta emakumea” UPV/EHUren %0,7 Elkartasun Fondoa (EFE07)</p>	<p>Concurso de microrrelatos “Pobreza y mujer” Fondo de Solidaridad 0,7% de la UPV/EHU (ASF07)</p>
<p>EFE07k mikrokontakizunen lehiaketa antolatu du “Pobrezia eta emakumea” izenburupean, UPV/EHUko ikasle eta langileen artean elkartasunarekiko sentsibilizazioa bultzatzeko.</p> <p>1. atala <i>Gizon-emakume guztiak aske jaiotzen dira, duintasun eta eskubide berberak dituztela; eta ezaguera eta kontzientzia dutenez gero, elkarren artean senide legez jokatu beharra dute.</i></p> <p>Lehiaketaren OINARRIAK honako hauek izango dira:</p>	<p>La ASF07 convoca un concurso de microrrelatos “Pobreza y mujer”, cuya finalidad es la de sensibilizar al alumnado y personal de la UPV/EHU sobre el tema de la solidaridad.</p> <p>Artículo 1: <i>Todos los seres humanos nacen libres e iguales en dignidad y derechos y, dotados como están de razón y conciencia, deben comportarse fraternalmente los unos con los otros.</i></p> <p>El concurso se registrá por las siguientes BASES:</p>
<p>1. Parte-hartzaileak</p>	<p>1. Participantes</p>
<p>UPV/EHUko kide diren guztiek har dezakete parte (ikasleek, administrazio eta zerbitzuetako langileek, irakasleek edota kontrataturiko beste langile batzuek).</p>	<p>Puede participar cualquier persona vinculada a la UPV/EHU (alumnado, personal de administración y servicios, profesorado u otro tipo de personal contratado).</p>
<p>2. Aurkeztu beharreko dokumentuak eta lanek bete beharreko baldintzak</p>	<p>2. Documentación a presentar y requisitos de los trabajos</p>
<p>(i) Mikrokontakizunen gaia pobrezia eta emakumea izan behar da; estiloa librea da</p> <p>(ii) Lehiakide bakoitzak BI mikrokontakizun gehienez aurkez ditzake.</p> <p>(iii) Mikrokontakizunek euskaraz edo gaztelaniaz idatziak, originalak eta argitaragabeak (edozein baliabidetan edo euskarritan) izan behar dute.</p> <p>(iv) Mikrokontakizunek gehienez ehun eta berrogeita hamar (150) hitz izan behar dituzte (izenburua eta ezizena zenbatu gabe). Baldintza hori bete ezean, aurkeztutako mikrokontakizuna lehiaketatik kanpo utziko da.</p> <p>(v) Mikrokontakizunak posta elektronikoz soilik bidali behar dira helbide honetara: concursomujer07@gmail.com. Parte-hartzaileek mezu elektronikoarekin batera erantsita bidali beharko dute euren mikrokontakizuna word formatuan (fitxategi horrek izenburua, testua eta ezizena besterik ezin du jaso). Mezuan idatzi beharko dituzte datu pertsonal guztiak (izena, telefono-zenbakia, helbide elektronikoa; eta ikasleak badira, matrikularen ordezkagiria). Parte-hartzaile bakoitzari “hartu-agiri” bat bidaliko zaio. Zalantzak izanez gero, concursomujer07@gmail.com helbide horretara bidal ditzakezu eta erantzungo dizugu.</p>	<p>(i) El tema de los microrrelatos debe centrarse en el tema de pobreza y mujer. El estilo es libre.</p> <p>(ii) Cada concursante puede presentar un máximo de DOS microrrelatos.</p> <p>(iii) Los microrrelatos deberán estar escritos en castellano o euskera, ser originales e inéditos (no deben haber sido publicados en ningún medio o soporte).</p> <p>(iv) Los microrrelatos no podrán sobrepasar las ciento cincuenta (150) palabras (sin incluir el título y el seudónimo). El incumplimiento de esta condición determinará, automáticamente, la exclusión del microrrelato presentado.</p> <p>(v) Los microrrelatos deberán enviarse exclusivamente por correo electrónico concursomujer07@gmail.com. Las personas participantes deberán incluir en este correo un fichero con su microrrelato (en este fichero constará exclusivamente el título, el texto y un seudónimo) en formato word, y en el cuerpo del mensaje deberán incluir sus datos completos (nombre, teléfono, e-mail y resguardo de matrícula en el caso del alumnado). Se enviará un “acuse de recibo” a cada participante y en ese mismo correo concursomujer07@gmail.com se atenderán todas las dudas que pudieran surgir.</p>
<p>3. Proiektuen aurkezpena</p>	<p>3. Presentación de proyectos</p>
<p>Lanak 2014ko urriaren 1etik urriaren 31era bitartean aurkeztu behar dira.</p>	<p>El plazo de admisión de trabajos estará abierto desde el 1 hasta el 31 de octubre de 2014.</p>

4. Epaimahaia eta ebazpena	4. Jurado y veredicto
<p>Epaimahaia osatuko dute EFE07ren Zuzendaritza Batzarreko kide batek (epaimahaiko buru izango denak), eta UPV/EHUri lotutako beste hiru kidek (horietako bat EFE07ko kidea izango da). Epaimahaiaren ebazpena EFE07ren web orrian argitaratuko da (http://www.ehu.es/rowupv07/07ehufondoa.htm), 2014ko abenduaren 1ean.</p> <p>Epaimahaiak baloratuko ditu lanen originaltasuna, sormenari dagokionez eginiko ahalegina eta kontakizunak igortzen duen elkartasuna edo itxaropena.</p>	<p>El jurado estará formado por un miembro de la Junta Directiva de la AFS07 (que actuará como presidente) y otras tres personas vinculadas a la UPV/EHU (una de las cuales, al menos, será miembro de la AFS07). El veredicto del jurado se hará público en la página web (http://www.ehu.es/rowupv07/fondoupv07.htm) de la AFS07 el 1 de diciembre de 2014.</p> <p>El jurado valorará la originalidad de los trabajos, el esfuerzo creativo y el mensaje de solidaridad o esperanza que transmita.</p>
5. Sariak	5. Premios
<p>Hiru sari-mota emango dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> Euskaraz edo gaztelaniaz idatzitako kontakizun onenari saria (300 euro bakoitzari) eta diploma bat. Akzesit bat gaztelaniazko lanentzat eta beste akzesit bat euskarazko lanentzat (200 euro bakoitzari). Euskaraz edo gaztelaniaz idatzitako kontakizun onenari saria (100 euro bakoitzari), bozketa irekiaren bidez erabakia. Bozketa egiteko, mikrokontakizunak jendaurrean jarriko dira (zehaztu gabe dago non jarriko diren) eta interneten eskegi (http://www.ehu.es/rowupv07/fondoupv07.htm) <p>Lehiaketa irabazten dutenek EFE07ri ematen dizkiote erreprodukziorako eta banaketarako eskubideak, horiek sentibilizaziorako jardueretan baizik erabil ez ditzan; halaber, eskubide horiek hirugarrenei uzteko ahalmena ematen diote.</p> <p>Sariak banatzeko ekitaldia 2014ko abenduaren 10ean izango da, Giza Eskubideen Adierazpenaren urteurrena ospatzeko. Irabazleek nork bere mikrokontakizuna irakurriko dute.</p>	<p>Se entregarán tres tipos de premios:</p> <ul style="list-style-type: none"> Premio al mejor relato en castellano y en euskera (300 euros cada uno), y diploma. Accésit en castellano y en euskera (200 euros cada uno). Premio al mejor relato en castellano y en euskera (100 euros cada uno y diploma) decidido por votación popular. Para realizar esta votación se expondrán los microrrelatos en un lugar a decidir y se colgarán en http://www.ehu.es/rowupv07/fondoupv07.htm <p>Los y las ganadoras en el concurso ceden los derechos de reproducción y distribución a la ASF07, para su utilización exclusiva en actividades de sensibilización, con la facultad de cederlos a terceros</p> <p>La ceremonia de entrega de los premios será el día 10 de diciembre de 2014, para conmemorar el aniversario de la Declaración de los Derechos Humanos. En esta ceremonia, las autoras y autores leerán los microrrelatos premiados.</p>
6. Oinarriak onartzea	6. Aceptación de las bases
<p>Lehiaketan parte hartzeak esan gura du oinarri hauek guztiak eta epaimahaiaren ebazpena onartzen direla.</p> <p>Epaimahaiak sariren bat hutsik lagatzeko eskubidea gordetzen du beretzat.</p> <p>Sor daitezkeen zalantzen aurrean, epaimahaiaren irizpidea izango da nagusi.</p>	<p>La participación en el concurso lleva implícita la aceptación de todas estas bases y el fallo del jurado.</p> <p>El jurado se reserva el derecho a declarar alguno de los premios desierto.</p> <p>Ante las posibles dudas que pudieran surgir, prevalecerá el criterio del jurado.</p>